

IUP-a: Aurkibidea

1. Markoa eta Sarrera
2. Irakaskuntza-jardueren programa
2.1 Helburuak, ekintzak eta lorpen adierazleak
2.2 Ohiko irakaskuntza jardueren programa
2.2.1 Ikastetxearen funtzionamendu eta antolamendu atala
2.2.1.a Egutegia eta ebaluazio-datak
2.2.1.b Ebaluazio egutegia
2.2.1.c Familiekin edo legezko tutoreekin komunikazioa
2.2.1.d Irakasleen eginbeharrak esleitzeko irizpideak
2.2.1.e Tutoretzen banaketarako irizpideak
2.2.1.f Irakasleen koordinazioa
2.2.1.g Saio eksklusiboen antolaketa (haur eta lehen hezkuntzan) eta ikastetxean ezohiko arreta emateko saioen antolaketa (beste mailatan)
2.2.1.h Ikasleak taldekatzeko irizpideak
2.2.1.i Hezkuntza errefortzua eta laguntza antolatzeko irizpideak
2.2.1.j Gune komunak antolatzeko eta banatzeko irizpideak
2.2.1.k Ikastetxeko zerbitzuak (jantokia, garraioa, liburutegia..)
2.2.2 Berrikuntza eta eraldaketa
2.2.2.a Ikastetxearen berrikuntza-proiektuak
2.2.2.b Berrikuntza arduradunen plangintza
2.2.3. Formakuntza eta garapen profesionala
3. Jarduera osagarrien eta eskolaz kanpokoaren programa
3.1 Jarduera osagarriak
3.2 Eskolaz kanpoko jarduerak
4. Urteko kudeaketa-programa
5. IUPren garapenaren eta ikastetxearen funtzionamenduaren jarraipena
6. Eranskinak

1. Markoa eta Sarrera.

2024-25 ikasturteko Urteko Kudeaketa Plana egiterakoan esan behar da ikastetxean lau urtetarako (2021-2025) zuzendaritza proiektua aurkeztue eta onartua izana zela. Nahiz eta karguen zenbait aldaketa izan, proiektuak aurrera jarraitzen du eta hau izango da azken urtea.

Ikastetxearen ordutegia zatitua izango da. Aurreko urtean jarraia izan zen obrak zirela medio baina amaitu zirenez ordutegi zatitua itzuli gara. Aipatu beharra dago eskola-komunitatea osatzen dugunok, ikastetxeko ordutegia jarraia izatearen eskaria egin genuela, baina Hezkuntzatik ezezko borobila jaso genuen.

Egun, ikastetxeak duen bidea hurrengo ikasturtetarako zuzendaritza proiektuarekin uztartzen jarraitzea izango dugu erronka nagusi.

Zuzendaritza proiektua pertsonengan oinarritu nahi izan da eta hezkuntza komunitatea osatzen dugun guztion ekarpenekin burutu nahi da. Horretarako, ikas komunitatearentzat interesgarriak izan daitezkeen jarduerak eta proiektuen bidez etengabeko eraikitze eta hobetzeko erronkan aurrera egin.

Gure proiektuaren ardatz ikaslea izanik, gure ikastetxeko Hezkuntza Proiektua eta Zuzendaritza Proiektua sinbiosian landuko ditugu. Proiektua hezkuntza komunitate osoarekin bultzatuko dugu. Horretarako, hezkuntza komunitate osoaren konplizitatea eta elkarlana lantzen saiatuko gara, elkarbizitza eta hezkidetzat zutabe izanik.

Aurtengo erronka nagusiak, hala ere, ikastetxeak hartua duen bideari eustea izango da, martxan dituen proiektuei eustea eta aurtun berriak direnak gauzatzea. Abiapuntu gisa, iazko Memorian jasotako ondorioak izango ditugu.

Aurtengoan ere aurretik martxan jarritako proiektuarekin jarraituko dugu: **HEZIKETA DIGITALA HERNANI BHI**n PROIEKTUA. Proiektu honekin aurrerapauso bat eman nahi dugu eta teknologia berriak modu kontziente batean erabiltzen ikastea bultzatuko dugu institutuko ikasle txikienekin hasita. Eskolan eta gizartean erabilera txarren ondorioak ikusten hasiak gara eta honi aurre egiteko asmoz, proiektu txiki hau martxan jarri dugu 24-25 ikasturtean.

Helburu izango dira baita ere gure aurreko urteetako ildo nagusiak:

- ☐ Eskola porrota gutxitu eta horretarako, lan metodologia aktiboak indartu, indartze neurriak ezarri zailtasun gehien duten ikasleentzat eta aukera berdintasuna bultzatu.
- ☐ Irakasleen arteko adostasunak lortu, mintegietako eskaerak kontuan hartu eta irakasleen prestakuntza egokia bideratu, bai ikastetxeko baliabideekin eta baita Berritzegunek edo kanpo-eragile desberdinek eskaintzen dizkigutenekin.
- ☐ Irakatsi-ikaste prozesuak hobetu, ikasle-irakasle eginkizunak adostu, ikasleriaren garapen integrala sustatu eta oinarritzko eta zehar-gaitasunak garatu arlo guztietan.
- ☐ Hizkuntza proiektua borobildu eta onartu.
- ☐ Ikasleen hizkuntzen gaitasunak hobetu, helburuak zehaztu, trataera bateratuak aztertu eta atzerriko hizkuntzaren trataera integrala eta proiektu europarrak bultzatu.
- ☐ Euskalduntze prozesuan eragile aktiboak izan.

Ildo nagusiak kontuan izanik, aparteko garrantzia du segidako mailetakoa irakasle taldeen arteko koordinazioa sustatzeak. Gure ikastetxea hiru eraikinetan banatutakoa izanik, hiru eraikinetako koordinazioa hobetzen jarraitzea eta irakasleen prestakuntza mintegien beharretara egokitzen jarraitzea garrantzitsua da.

Irakasleen eta irakaskuntzaren kalitatea hobetzea da eskoletan eragin handiena duen faktorea.

Ebaluazioaren arloan ere aurrera egin beharko da, bai ikastetxe barrukoan eta baita ere kanpokoan, ikasleen emaitzen garapena ikusi nahi bada.

Curriculum berriaren ezarpenak dakarkien erronkak eta eguneratu beharrakin, aurreko ikasturtean zehar hurrengo urteetarako programazioen lanketa egin zen. Ikasleak ebaluatzeko askotariko estrategiak aurreikusi dira, ikasleen etengabeko ebaluazioan eta formazioan sakondu ahal izateko. Horretarako, ikasturte berrian eskatutako funtsezko alderdiekiko ikasle bakoitzaren abiapuntuko egoera oinarri hartuko da.

Lortutako informaziotik abiatuta, laguntza- eta errefortzu-jarduerak antolatu beharko dira, ikasturte berrirako aurreikusitako programazioari dagokionez, mailaz igo arren ikasteko zailtasun espezifikoak dituzten ikasleentzat. Hori guztia Jarduera Plan Pertsonalizatuan jasoko da.

Bestalde, aurten iazko hainbat proiektuekin jarraituko da. Deialdi berriek gai berriak badakarzkite ere proiektuek aurrera jarraituko dute. Aurreko ikasturteetan ikastetxeak heldu zion STEAM Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza, Artea eta Matematika bateratzen dituen proiektuari eta aurten proiektu honekin aurrera jarraituko da. Irakurketa plana Hizkuntzen trataera bateratuarekin eta HNPrekin batera garatuko da, eta bere lekua izango du mintegi eta ikasgai guztietan.

Ikastetxeko praktika pedagogikoak integratzen eta sistematizatzen aurrera egingo da, bai irakasleen koordinazio saio eta bilerak erabiliz eta baita prestakuntza saioen bidez ere, besteak beste, Hezkuntza Proiektuko xede orokorra lortu ahal izateko, hots: “ikasle autonomoak, beren ikaste prozesuaren jabe, autoebaluatzeko gai, hobekuntzara orientatuak, taldean lanean dakitenak, balio estetikoekiko sentsibleak, eta ekintzaileak, eskolako Hezkuntza Proiektuan jasota ditugun balio eta asmoak (hezkidetza, eleaniztasuna, inklusibitatea...) bereak egingo dituztenak”.

Horretarako ikasturte honetan ere **ikasleari bere ikas-prozesuan protagonismoa ematen dioten metodologia eta lan egiteko moduak bultzatzen jarraituko ditugu**, ikasle guztien arrakasta eta ongizatea lortzeko. Horretarako prestakuntza eskaintza eta gure esperientzia baliatuko dira eta baliabide pedagogiko eta teknologikoak (eta hornikuntza orokorrekoak) lortzeko eta eguneratzeko ahalegina egingo da.

Atzerriko hizkuntzen mintegiak Aleman hizkuntza bigarren urtez eskainiko du ikastetxean DBH3-4 mailetan. Frantsesa maila guztietan eskaintzen da eta erronka handia da maila guztietan taldea ateratzeko adina ikasle edukitzea.

Esan beharrik ez dago, IKTen garrantzia azpimarratzekoa dela arlo guztietan, bai ikastetxe barruko komunikazioan eta baita ikastetxetik kanpoko harremanetarako ere, eta hala jaso dugu UKP honen helburuetan.

Aurreko ikasturteetan bezala, **Hizkuntza Normalkuntza proiektu orokor nagusietako bat** izango da. Proiektu hau azken urtetako proiektu jarraitua izanik, aurten 24-25 ikasturteko planari helduko zaio, helburuetan azaltzen den bezala. Hizkuntza proiektuari dagokionean, azken urteetan ikastetxeak Hizkuntza proiektua aurkeztu du eta diru laguntzak eskuratu ditu proiektua gauzatzeko. Aurten ere izango ditugu, bai ordu kredituak eta baita ere atzerriko hizkuntzan irakatsiko diren ikasgaia: Anatomia.

Era berean, azpimarratu nahi ditugu ingurunea zaintzeko eta garapen iraunkorra ikastetxeko proiektu eta egitasmoetan txertatzeko proiektua, aurreko urteetan ikasleekin landu eta bultzatu den Agenda 30 proiektua, hain zuzen ere, gai nagusia oro har ingurumenarekin, klima aldaketarekin eta aniztasun biologikoarekin loturiko gaien inguruan izanik. Aurtengo gaia MUGIKORTASUN JASANGARRIA izango da.

DBH-ko maila guztietan irteerak bultzatuko dira egunekoak eta bi egun edo gehiagokoak. Nahiz eta ezin den bermatu irteera hauek egitea posible izango denik, hauek hezkuntza proiektuaren helburuetarako duten garrantzia aintzat hartuta, maila bakoitzean aukera aztertu eta landuko da.

Proiektu eta asmo hauek guztiak aurrera eramateko ikas komunitate osoaren kohesioa eta elkarlana beharrezkoak dira, bakoitza bere eremutik, bere lantaldetik, baina interes bakarrarekin: ikasleen heziketa osoa. Horretan bide lagun izango ditugu eskola barruko

partaideak eta herriko eta inguruko zenbait eragile (Udala, herriko Ongintza, Kultur etxea, inguruko ikastetxeak eta sareak, erakundeen eskaintzak...). Halaber, bai eskola barruan eta bai kanpoko ekintzetan ezinbestekoa izango da giro egokia izatea, harreman onetan oinarritutakoa.

Laburbilduz, UKP dokumentura ekarri ditugu bai azken urteetan landu diren proiektu eta egitasmo nagusiak eta baita ere egungo zuzendaritza taldeari garrantzitsuak iruditu zaizkionak.

Erabakiak hartzean eragina izan duten aspektu edota faktoreak .

Erabakiak hartzean zenbait faktorek eragina izan dute:

- Zuzendaritza taldearen gogoeta.
- Aurreko urteetako proiektu eta helburuak kontuan hartzea.
- Aurreko urteko Memoria.
- UKP berria osatzeko epeak (prestakuntza, lan banaketa, emaitzak jasotzea, dokumentua osatu eta onartzeko faseak).
- Gure ikastetxea antolakuntza handia, konplexua eta etengabeko aldaketetan murgilduta dagoela: hiru eraikin, ikasle-irakasle kopuru handiak, etapa eta mailak, aniztasun gelak; Gela Egonkorra eta ZIG Gela; funtzionamendu eta koordinazio premiak.
- Euskararen Normalkuntza, Eleaniztasuna, Irakurketa Plana landu. Hizkuntza Proiektu eleanitza, euskara ardatz hartuta (eta erabilera sustatuz esparru guztietan (HNP)) eta, hizkuntzen trataera bateratua landuz.
- GU GEOK plataforman hartutako erabakiak.
- Irakasleen etengabeko prestakuntza mantendu beharra.
- STEAM (Zientzia-teknologia-arteak proiektua), diziplinarteko proiektua bideratu eta gauzatu.
- Aurrera egin metodologia aktiboak bultzatu eta IKTen erabilera ahalbidetzen.
- Tratu Onak bultzatzearekin bat eginez, Bizikidetzak eta Hezikidetzak ikastetxearen zutabeak direla sinistea.
- Gainerako proiektuak: aniztasunari erantzuteko programak (DC, HBSP, Bidelaguna, HIPI, Gela Egonkorra eta ZI Gela, ...) bultzatu.

Egiteko prozedura eta lan-metodologia.

- 1) Zuzendaritza taldeak prozesuaren plangintza egiten du: metodologia eta epeak.
- 2) Zuzendaritza taldeak ikastetxeko dokumentu estrategikoetan finkatutako helburuak aztertzen ditu (Hezkuntza Proiektua, Plan estrategikoa, Zuzendaritza proiektua, AJA) eta iazko memoriak eta ebaluazioak kontuan hartuz, helburuak lehenetsi.
- 3) Ikastetxeko hainbat talderi (mintegi didaktikoak, DBH koordinazio taldea, batzordeak), beharren analisia egiteko eskatu.
- 4) Ikasle taldeei beharren analisia egitea eskatzen zaie.
- 5) Proiektu buruei datorren ikasturterako dituzten helburuak zehaztea eskatu.
- 6) Zuzendaritza taldeak ekarpenak laburbildu eta helburuak adostu eta finkatu.
- 7) Zuzendaritza taldeak planaren proposamena idatzi.

- 8) Batzorde Iraunkorreko partaide guztiei proposamena igorri eta Batzorde Iraunkorrean aztertu ondoren azken proposamena idatzi.
- 9) OOGan eztabaidatu eta onartu.
- 10) Plana zabaldu Eskola Komunitate osoari.

Hezkuntza-komunitatearen ekarpenak.

	bai	ez	Zer-(nola)
Klaustroa	x		Helburu orokorrak, ikastetxez kanpoko prestakuntza, onarpena
DBHko Koordinazio Bilera	x		Helburu orokorrak, beharren analisia
Mailetako taldeak	x		Helburu orokorrak, jarduera osagarriak, eskolaz kanpoko jarduerak, formakuntza, esperientziak eta proiektuak
Mintegiak	x		Helburu orokorrak, jarduera osagarriak, eskolaz kanpoko jarduerak, formakuntza, esperientziak eta proiektuak
Proiektuen arduradunak	x		Helburu orokorrak eta jardueren planifikazioa, Proiektuak eta programak, Prestakuntza plana
Ikasleriaren ordezkariak	x		Helburu orokorrak, beharren analisia, onarpena
Familien ordezkariak	x		Helburu orokorrak, beharren analisia, onarpena
Batzordeak	x		Helburu orokorrak, Batzordeen helburu zehatzak, beharren analisia
Admin. eta Zerbitzuen langileria	x		Eskolako zerbitzuak
Zuzendaritza taldea	x		Justifikazioa, helburu orokorrak eta jardueren planifikazioa, antolaketa eta funtzionamenduaren aspektuak, formakuntza, proiektuak, programak, ekonomia kudeaketa, informazioa helarazteko plana
Enpresak-erakundeak	x		Esperientziak eta proiektuak

2. Irakaskuntza jardueren programa

2.1.Helburuak, ekintzak eta lorpen adierazleak.

Helburu 1	Elkarbizitza positiboa sustatzea ikas komunitateko kideen artean.			
jarduerak	arduraduna-agenteak	denboralizazioa	baliabideak	ebaluazioa: adierazleak eta datak
BIZIKASI programaren jarraipena egin	Talde dinamizatzailerak orientatzaileak eta zuzendaria	ikasturte osoan	programaren materiala, Berritzeguneko aholkularitza	Kasuen txostenak eta tutoretzako jarduerak
Tutoretza saioetan tutoretza plana azaldu, gero elkarbizitzako gaiak ikasleekin lantzeko	Orientatzailea	Ikasturte osoan	Tutoretza saioak Ordezkaritza bilerak	Bileretako aktak Plangintzaren betetze mailaren balorazioa
Elkarbizitza batzordean ikastetxeko bizikidetzan eragina duten kontuen lanketa egin	Zuzendaritza eta hezkidetza arduraduna	Ikasturte osoan	Batzordea, Dokumentuak eta bilerak	Bileretako aktak
Taldeetan dabilen kideak identifikatu eta haiekin ikasle gehiago aktibatu (bereziki 3. eta 4. mailan)	Hezkidetza arduraduna	Urria-Azaroa	Ikasleen parte hartzea, bilerak	Hezkidetza Batzordearen balorazio bilera ikasturte amaieran.
Ikasle eta irakasleen artean ARRETA GUNEAK dokumentua zabaldu	BAT taldea Hezkidetza Batzordea	Iraila-Urria	Formakuntza, emaila Tutoretza saioak	Tutoretza bileretako aktak eta tutoreen balorazioa
Ikasturteko egun moreak zehaztu, zabaldu eta ikasleekin sentsibilizazio kanpainak antolatu	Parekidetasunaren aldeko ikasle taldeak	Data esanguratsuak zein beste	Ikasleen parte hartzea	Balorazio bilerak ekintzen ostean.

	Hezkidetza Batzordea		Kartelak, ekintzak	Ikasle taldeen balorazioa Hezkidetza batzordeko balorazioa
Puntu Lila digitala eta kortxoak aktibo mantendu	Hezkidetza Batzordea irakasle eta ikasle parte hartzaileak	ikasturtean zehar	kartelak, berriak, hitzaldi deialdiak, liburuak...	Hezkidetza Batzordeko bilerak eta irakasleei galdeketa.
Autodefentsa Feminista eta Maskulinitate Berriak tailer ez-mistoei zer egin udalarekin adostu.	Hezkidetza arduraduna Emagin	Abenduan	Hernaniko Parekidetasun Sailak Beldur Barikekin eskaintzen dituen saioak	Berdintasun Sailekoekin bilera ikasturte hasieran.
Irakasleentzako formakuntza (Hiruki Larroxa)	Hezkidetza Batzordea	Azaroa-abendua	Hiruki Larroxako elkarteko dinamizatzailerak	Formatzaileen, antolatzaileen eta partehartzaileen balorazio inkesta.
Ikasleentzako ikastaro edo lanketak proposatu mailaka.	Hezkidetza Batzordea	ikasturtean zehar	Hezkidetza, Tratu Onak, Armairutik Plazara! eta begirada feminista lantzeko saioak.	Egin osteko balorazioa.
Hezkidetza Programazioetam - mintegikako jarraipena, ideiak partekatu, laguntza eskaini. Balorazioa eta eguneraketa.	Hezkidetza Batzordea	Ikasturtean zehar	Baliabide anitzak.	Hezkidetza Batzordearen balorazioa
Jarduera osagarrietan ikuspegi hezkidetzailerak txertatzen lagundu (KULTURA ESKOLA, Hezkidetza ikasgaia...)	Hezkidetza arduraduna	ikasturtean zehar	Baliabide eta material anitzak	Tutore bileretako aktak Hezkidetza Batzordearen balorazioa
Behatokiko bileretan parte hartu eta sortzen diren elkarbizitza gaietan interbenitu	Hezkidetza Batzordea	ikasturtean zehar	bilerak	Balorazio bilera Bilerako aktak

Sexu-Heziketa DBH2n eta ZI gelan	Harremanak Elkartea/Udala	ikasturtean zehar	Formakuntza eta beharrezko bestelako materialak	Formatzaileen, ikasleen eta hezitzaileen balorazioa
Kulturarteko Plaza Feministarekin bisita edota jarduera antolatu eta datozen urteotarako finkatu DBH3n eta Batxi1en.	Hezkidetza arduraduna Berdintasun teknikariak	ikasturtean zehar	Bisita bera eta materiala	Formatzaileen, ikasleen eta joandako irakasleen balorazioa
Eraikinen eta azpiegituren egoeraren jarraipena eta arazoen azterketa	Azpiegitura batzordeburua	Ikasturtean zehar	Azpiegitura batzordeko bilerak, Mantenu desberdinen arduradunak. Mantenu orokorrerako inprimakiak	Azpiegitura batzordearen aktak. Parteak
Espazio komunetan garbitasuna sustatzeko sentsibilizazio kanpainak eta ekintzak egin	Idazkaria Orientatzailea Agenda 30 arduraduna	Ikasturtean zehar	Agenda 30 batzordea Irakasleak, Ikasle ordezkariak,	Kanpaina edo ekintzen ondorioz lurrera botatzen diren zaborren kopurua jaitsi dela erakusten duten erregistroak (argazkiak...)
HEZIKETA DIGITALA HERNANI BHIIn proiektua	Informatika mintegiko irakasle eta 2.batxilergoko ikasleak	Ikasturtean zehar	Irakasleen eta ikasleen parte hartzea	Kurtso amaierako balorazioa

Helburu 2	Ikasleek, era ludiko batean STEAM ikasgaiak lantzea. Proiektua aztertu, prestakuntza jaso eta praktikara eraman.			
	Eskolako energia kudeaketa efizientea			
JARDUERAK	ARDURADUNA-AGENTEAK	DENBORALIZAZIOA	BALIABIDEAK	EBALUAZIOA: ADIERAZLEAK
1.- Arazoaren aurkezpena.	Itxaso Berasategi Ander Zufiria Ibon Aranalde	Urria - Martxo	Google aurkezpenak, ordenagailua eta proiektorea.	Ikasle talde ezeberdinei arazoaren aurkezpena burutu zaien.
PROTOKOLOAREN SORRERA				
2. Ikasgelako parametro ezberdinen neurketa	Itxaso Berasategi	Urria	Neurgailuak eta ordenagailua.	Aurrez zehaztutako parametroak neurtu diren.
3. Ikasgelako parametro egokienak aztertu eta neurtutakoekin alderatu.	Itxaso Berasategi	Azaroa	Ordenagailua eta bestelako informazio iturriak.	Dagokion ariketa dokumentua entregatu den.
4. Protokoloa sortu.	Itxaso Berasategi	Azaroa - Abendua	Ordenagailua, infografiak egiteko tresna digitalak.	Infografia entregatu den.
IKASGELAREN DISEINUA				
5. Ikasgela baten neurriak hartu.	Ander Zufiria	Azaroa	Flexometroa eta ordenagailua.	Ikasgelaren krokisa entregatu den.
6. Ikasgelaren 2D-ko planoak burutu.	Ander Zufiria	Azaroa		Ikasgelaren planoak entregatu diren.
7. Ordenagailu bidezko 3D diseinu programa/ak ezagutzea.	Ibon Aranalde	Urria - Azaroa	FreeCAD, SolidWorks, Google aplikazioak, ordenagailua, Youtube, eta Github.	3D diseinuko ariketa guztiak entregatu diren.

8. Ikasgelaren 3D diseinua ordenagailuz burutu.	Ibon Aranalde	Urtarrila	TinkerCad diseinu programa eta ordenagailua.	Ikasgelaren 3D diseinuaren fitxategia entregatu den.
PROTOTIPOAREN EKOIZPENA				
9. Exekuzioaren plangintza burutzea.	Ibon Aranalde	Urtarrila	Google aplikazioak.	Planifikazioaren dokumentua entregatu den.
10. 3D inprimagailuen ezagutzea.	Ibon Aranalde	Otsaila	3D inprimagailua, Simplify3D, ordenagailua, interneta eta Google aplikazioak.	3D inprimagailuei buruzko ariketak burutu diren.
11. Ikasgelaren 3D diseinua zatikatu	Ibon Aranalde	Otsaila	TinkerCad, Cura, Sinplifu3D, Sketch Up	Zatikaturako fitxategiak entregatu diren.
12. Ikasgelako 3Dn inprimatzea.	Ibon Aranalde	Otsaila - Martxoa	Simplify3D, ordenagailua eta Ender inprimagailua.	Ikasgelaren prototipoa fisikoki entregatu den.
13. Inprimaturako zatien postprozesatzea	Ibon Aranalde	Martxoa	Tailerreko erraminta eta materialak	Prototipo bakarra osatua dagoen.
14. Arduino plakaren ezagutze eta sakontzea.	Ibon Aranalde	Martxoa	Googleen aplikazioak	Arduinori buruzko galdetegia egin den.
15. Proiektuko zirkuitu elektronikoaren diseinua.	Ibon Aranalde	Apirila	Tinkercad	Tinkercad fitxategia entregatu den.
16. Programazioa burutzea.	Ibon Aranalde	Apirila	ArduinoBlocks softwarea.	Arduinoko programa entregatu den.
17. Zirkuitu elektronikoaren muntaia prototipoan	Ibon Aranalde	Maiatza	Osagai elektronikoak eta tailerreko erramintak.	Prototipoaren muntaia elektronikoa egin dagoen.
18. Funtzionamendu zuzena egiaztatzea neurketak eta doikuntzak eginaz	Ibon Aranalde	Maiatza	Polimetroa eta tailerreko erramintak.	Prototipoak bete behar dituen helburuak funtzionamendu aldetik betetzen dituen.

HOBEKUNTZAK TXERTATZEA				
19. Funtzio anitzak definitu eta erabakitzea. Hari gabeko komunikazio moduak aztertzea.	Ibon Aranalde	Maiatza	Ordenagailua eta interneta.	Funtzio ezberdinen deskribapena egin den.
20. App-aren garapena	Ibon Aranalde	Maiatza	Googleen aplikazioak, sentsoreak, App inventor	Programaren algoritmoa zehaztea.
21. Haririk gabeko komunikazioa burutzea.	Ibon Aranalde	Maiatza	AppInventor eta Arduinoa.	Mugikorraren bidez oinarrizko kontrola egin den.
22. Prototipoaren apainketa	Ibon Aranalde	Maiatza	Margoak, espraiak, koloretako paperak, eva gomak, apaingarriak...	Prototipoa apainduta eta akabera egokia emana dagoen
PROIEKTUA DOKUMENTATZEA ETA ZABALKUNDEA				
23. Web orria sortu	Ibon Aranalde Itxaso Berasategi Ander Zufiria	Urria-Maiatza	Ordenagailua eta Google aplikazioak	Web orriak proiektuaren dokumentazio osoa jasotzen duen.
24. Proiektuaren aurkezpen dokumentua sortzea gaztelaniaz.	Gaztelaniako arduraduna	Maiatza	Google aurkezpenak, ordenagailua eta proiektorea.	Aurkezpen dokumentua egina dagoen.
25. Proiektua zabaltzea	Gaztelaniako arduraduna	Maiatza-Ekaina	Ordenagailua, sare sozialak...	Proiektua zabaltzen den.

Helburu 3	Hizkuntza Proiektua berrikustea eta behar diren aldaketak egitea. Hizkuntzen trataera integratua lantzea Hizkuntza proiektuaren markoan. Euskararen erabilera indartzea ikasleen artean eta komunitate osoan. Irakurketa Plana garatzea: Agustin Iturriagako, Harrobi eta Santa Barbarako liburutegietako beharrak aztertu eta asetu.			
JARDUERAK	ARDURADUNA-AGENTEAK	DENBORALIZAZIOA	BALIABIDEAK	EBALUAZIOA: ADIERAZLEAK
Lasarteko Berritzegunera Hizkuntza Normalkuntza Proiektuaren mintegian parte hartu.	HNAT	Ikasturte osoan zehar, hilean behin, astearteetan 09:30-11:30	Berritzeguneko aholkularitza teknikoa	Bileretako aktak
Hizkuntza Normalkuntzako Programaren urteko plangintza eta memoria egin.	HNAT eta HNP arduradunak	Iraila eta ekaina	Ulibarri Programa	Ulibarrin osatutako urteko plangintza eta memoriak
NOLEGA dirulaguntzak eskatu eta memoria egin.	HNAT eta HNP arduradunak	iraila eta ekaina	Nolega azpiegitura gunea	Eskaera eta justifikazio agiriak
Ikasleak ahalduntzeko ikastaroak, motibazio eta formakuntzak eskaini: sentsibilizazio saioak (DBH 2 eta 1. Batxilergoan), Hizkuntza Normalkuntza Proiektuaren transmisioa DBHn, Hitano ikastaroa, C1 maila prestakuntza, <i>Mintzodromoa</i> , <i>Euskaraldia</i> ... Irakasleei zuzendutako formazioa eskaini: nola eragin	HNAT eta HNP arduradunak, DBH-Batziko ikasleak. Dobera Euskara Elkartea, UEMA, Herriko euskaltegiak...	Ikasturte osoan zehar	Nolega dirulaguntzak, Dobera Euskara Elkartea, UEMA, Herriko euskaltegiak, Euskaltzaleen Topagunea...	Ikastaroen txostenak, partaidetza eta asebetetze mailak.

ikasleengan euskaraz egin dezaten (tresnak, baliabideak, estrategiak)				
Eskola Hiztun Bila jardunaldietara joan.	HNAT	azaroaren 8an	Eskola Hiztun Bila jardunaldiak Gasteizen	Eskola Hiztun Bila jardunaldietara asistentzia.
Hernani BHIko euskara batzordeak osatu, bai gurasoena, baita ikasleena ere.	HNAT eta HNP arduradunak, ikasleak, gurasoak eta langile ez dozentek.	Ikasturte osoan zehar. beharren arabera, hilean behin gutxi gorabehera.	Bilerak egiteko ikasgelak eta gaiak lantzeko hainbat material eta agiri.	Bileretan parte hartzeko eta bileretako aktak.
Hernaniko herrigintzako hainbat egitasmotan parte hartu: Euskara ari du, Dobera euskara elkarte, Kronika, Euskaraldia, Mintzodromoa,...	HNAT eta Hernaniko eragile desberdinak: Dobera, Kronika, AEK, udal euskaltegia, udala...	Ikasturtean zehar hainbat egitasmo	Ikasleen Txokoa gehigarria, mintzodromoa, sentsibilizazio saioak, ikastaroak, EUSKARALDIak antolatutako ekintzak...	Bileretan parte hartzea, txostenak, aktak, apunteak...
Ikasturte hasieran Udal euskaltegiko eta AEK-ko ordezkariak etorri ziren eskola orduz kanpoko eta urte osorako ikastaroa eskeintzera haien egoitzetan.	HNAT eta euskaltegiko irakasleak.	Irailean	Eskainiko duten ikastaroa.	Urritik maiatza bitartean. Ikasleen izen-ematea eta asistentzia.
Batzilergoko ikasleentzat HABE C1 azterketa prestatzeko ikastaroa antolatu, horretarako eskaerarik balego ikasleen aldetik.	HNAT eta euskaltegiko irakaslea.	Urrian eta maiatzean	Ikastaroa emateko ikasgelak eta euskaltegiko irakaslea	Ikasleen izena ematea, asistentzia eta irakaslearen materialak.

Hernaniko Udalak eskainitako <i>Gaztezulo</i> aldizkariaren IRAKURRIZ GOZATU egitasmoan parte hartu.	HNAT, Hernaniko Udala eta <i>Gaztezulo</i> aldizkaria.	Azarotik apirilera	<i>Gaztezulo</i> aldizkariaren 6 ale.	<i>Gaztezulo</i> aldizkariaren banaketa ikasleen artean gelaz gela
4 DBH eta 2 BATXeko ikasleentzat A2 eta B1/B2	Frantses irakasleak	Azken hiruhilekoan	Frantses irakaslea. Azterteketaarako material berezia, azterketa eta jarduera ereduak	Kanpo ebaluazioa: azterketen emaitzak maiatz/ekainean
Ikasgaiak atzerriko hizkuntzan irakastea: Anatomia	BIOLOGIA mintegiko irakaslea	Ikasturtean zehar	BeA eta biologia irakaslea	Irakasleen balorazioa. Ikasleen parte hartzea. Ikastaroen jarraipena
Irakurketa Plana garatzen jarraitu: - <i>Liburutegietako arduradunak izendatu. Funtzioak zehaztu eta liburutegietako aurtengo plana adostu.</i> - <i>Ikasteko irakurri</i>: irakasleei irakurketa modu estrategikoan lantzeko emandako informazioa gogora araztea. Irakurketa plana programazioetan txertatuko da. Sitean informazioa jarri. Maila eta hizkuntza ezberdinetan irakurriko diren irakurgaiak	Irakurketa Planeko arduraduna. Liburutegietako arduradunak Irakurketa Planeko arduraduna,	Ikasturtean zehar jarraipena egingo da.	Liberazio orduak. Liburutegi plana Berritzeguneko baliabideak, Irakurgunea web orria...	Maileguen eta erabilpenaren jarraipena eta ebaluazioa. Banatu eta partekatzen den materiala. Programazioak eta azken memoriak. Irakasleen ekarpenekin osatutako testu bankua.

taulan jaso. - Herriko liburutegiarekin elkarlana sustatuko da:besteak beste, DBH 2. mailako ikasleekin bisitak antolatuko dira.	Santa Barbarako liburuzaina eta Hernaniko liburutegiko arduraduna	Urria	Herriko liburutegiko arduradunak prestaturikoa.	Bisiten eta elkarlanaren balorazioa.
--	---	-------	--	---

Helburu 4	Komunikazioa, koordinazioa eta elkarlana landu, bai ikastetxean, bai ikas komunitatean (familiak, ikasleak...) eta bai kanpora begira (herriko eta inguruko eragileak, hezkuntza saileko eragileak, ibilbideko ikastetxeak,)			
jarduerak	arduraduna-agenteak	denboralizazioa	baliabideak	ebaluazioa: adierazleak eta datak
Biteri kultur etxearen eta udal liburutegiaren programazio eskaintza aztertu eta proposamenak bideratu	DBH ikasketa burua Liburutegietako arduradunak	1. hiruhilabetea	tutoretza bilerak Kultur etxeko programazioa	Jardueretan parte hartu duten ikasle kopurua DBH-ko maila bakoitzean
Udaletxearekin sinatuta dugun babesgabetasun egoeran dauden ikasleekin jarduteko protokoloaren jarraipena eta berrazterketa egin	Orientatzailea	Kurtsoan zehar	Protokoloa Ikasle zerrenda eguneratua Behatokia	Jarraipen bilerak egin dira. Bileren egutegia eta aktak
Udaletxeko herri hezitzaile sarearen inguruko hedapenaren programako teknikariekin hasitako lankidetzak sustatu	Orientatzaileak	Kurtsoan zehar	Udaleko Ongintza departamentua Kale Hezitzaile teknikariak	Beraiekin izandako ikasleen jarraipen bilera kopurua
Ikastetxeko twitterra eta web orria erabili ikastetxeko jarduerak zabaltzeko	komunikazio arduraduna	Urritik aurrera	irakasleak, egiten diren jarduerak osagarriak, zuzendaritza laguntza	Ikastetxeak sortu dituen txio kopurua Kontuaren erabileraren datuak (iaz baino erabilera handiagoa)
Ikastetxe barruko koordinazioa hobetu, sendotu.	DBH ikasketa burua eta mailetako koordinatzaileak	ikasturtean zehar	Batzorde, bilera eta bestelako bilera guneak	Balorazioa, asebetetze galdeketa
Familien eta ikastetxearen arteko elkarlana sustatu eta komunikazioak erraztu INIKA erabilita	Zuzendaria Guraso ordezkariak	Kurtsoan zehar	Guraso elkarteak Beste batzordeak INIKAk komunikazio baliabideak	Familien postazun inkestak Batzordeen bukaerako memoriak

Hernaniko ikastetxeekin koordinazioa, lankidetzarako eta gogoeta partekatuak egin	Zuzendaria	kurtsoan zehar	Udaleko Hezkuntza Batzordea	Bileretako aktak, galdeketak eta memoriak
Bigarren Hezkuntzako ikastetxeekin eta inguruko ikastetxe publikoen esperientziak partekatu	Zuzendaria	Kurtsoan zehar	BIHE (lantaldeak) Matrikulazio kanpainak Bailarako ikastetxeekin bilera	Bileretako balorazioa, ikasleen trukaketak, matrikulazio datuak
Heziketa digitala Hernani bhi-n proiektua	Informatika mintegia	Kurtsoan zehar	Mintegiko irakasleak eta informatikako ikasleak	Urte amaierako memoria
Ikastetxeko batxilergoko ikasleak dbh 1eko ikasleengana hurbiltzea interakzio moduan: hezkidetza, arrazismoa, euskara...	Euskara mintegia eta hezkidetza lantaldea	kurtso hasieran	Irakasleak eta ikasle boluntarioak	Ekintzaren balorazioa.
Euskararen erabilera eta euskal kulturaren transmisioa eragile aktiboak bihurtzea.	Zuzendaria Irakasle taldea	Kurtsoan zehar	Irakasle, guraso eta ikasle boluntarioak	Urte amaierako balorazioa.

Helburu 5	Ikastetxeko iraunkortasunaren irizpideak antolatzen jarraitzea, curriculum, kudeaketa eta parte-hartzeari buruz, oro har ingurumenarekin, klima aldaketarekin eta aniztasun biologikoarekin loturiko gaien inguruan. Bi urteko plangitzaren 2. ikasturte honetan (2024-26) bereziki MUGIKORTASUN JASANGARRIA HERNANIN gaia landuko dugu. Helburu hau, Garapen Jasangarrirako 11.a da: Hiri eta komunitate jasangarriak guztiontzat bermatze aldera. Mugikortasun jasangarria ardatz hartuta, ondoko helburuak lor daitezke: * Hezkuntza-komunitatea, tokiko zein planetako ingurumenaren egoeraz sentsibilizazioa, motibazioa eta ezagutza lantzea. * Ikastetxe eta udalerriko ingurumen-arazoen konplexutasuna identifikatzea, aztertzea, alternatibak proposatzea eta Eskolen Udal Foroan ezagutaraztea * Ikastetxe eta udalerriko konpromezuak lortzeko prozesuak abiatzea * Ikasleei beren ikasketetan, eskolan eta udalerraren bizitzan protagonismoa ematea * Udalerriko edo eskualdeko eskolen arteko laguntza bultzatzea, baita erakunde eta eskolen artekoa ere * Garapen iraunkorrak dakartzan eskakizunei erantzun ahal izateko curriculum egokitzea, diziplinartekotasuna sustatuz eta metodologia ikertzaileak eta parte-hartzaileak erabiliz			
Jarduerak	Arduraduna-agenteak	Denboralizazioa	Baliabideak	Ebaluazioa: adierazleak eta datak
Hezkuntza komunitateak mugikortasunarekin lotutako diagnostikoa egin, Hernani jasangarria izan dadin konpromisoak eta iraunkortasun irizpideak identifikatu, adostu eta dagozkien dokumentuetan barneratu. Helburu eta konpromiso horiek ikastetxeko estamentu desberdinei (eskola komunitatea,..) zabaldu eta martxan jarri.	- Zuzendaritzak - EA30eko talde gidariak - Batzorde pedagogikoa - Ikasle batzordea - Ekosarea: Ingurumen batzordea	1. hiru hilekoan 2. hiru hilekoan 3. hiru hilekoan	- Berritzeguneak eskainitakoak - EA 30 eko memoriak - EA 30eko aktak	- Identifikatutako helburu, konpromisoak edota iraunkortasun irizpideak zein diren eta zein dokumentutan barneratu diren.
1) Antolakuntza fasea: - Koordinazio bilerak - Diagnostikorako eta esku-hartze planerako 11.GI Hari buruzko materialaren zabalpena	- Talde sustatzailea, ikasleak - Gai desberdinetako irakasleak eta tutoreak	1. hiru hilekoan	- Web gunea - Guraso bilerak - Berritzeguneak - prestaturiko materiala	- Parte hartutako gurasoa kopurua. Azaroan - Parte hartutako irakasle kopurua. Abenduan - Ikastetxetik parte hartutako kide kopurua. - Ostadar txokoan jarritako iragarki, argazki...eta abarren jarraipena.

2) Sentsibilizazio eta motibazio fasea - Motibazio-jolasa - Material osagarriaren lanketa (material bilduma) - Konpromisoan gurpila (dekalogo)	- Irakasleak - Talde sustatzailea - Ikasleak - Udalak		- Iraskale eta tutoreak - Teknikarien informazioa eta aholkularitza	- Ekoliderak izendatu eta baloratu bere lana bete duten ala ez. - Egindako ekintzak zenbatu. - Ekintzan parte hartzaileen kopurua zenbatu.
3) Diagnostiko fasea - Udalerriko diagnostikoa egin - Bestelako ekintzak (mugikortasunaren astea, argazki lehiaketak, jardunbide egokien kodea...) - Esku hartze planaren diseinua 4) Komunikazio fasea - Weborriaren sozializazioa - Eskolen arteko Foroa - Udal Eskola foroa	- Ikastetxeko Foroak eta irakasleak - Guraso, langile eta irakasle - EA30eko talde sustatzaileak	2. eta 3.hiruilekoan	- Berritzeguneak eskainitako baliabideak	- Mintegi guztietan EA30ri buruz biltzen den programazio kopurua - Mintegi desberdinek bildutako ekintza kopurua - Parte hartutako irakasle eta mintegi-kopurua - Bilerako aktak

2.2.1 Ikastetxearen funtzionamendu eta antolamendu atalak.

a. Eskola egutegia.



Kurtso hasiera - irailak 6

Kurtso bukaera - ekainak 20



IKASTURTEA 2024-2025

2024-2025 IKASTURTEA

B

1.eb: ir. 9 - az. 7 (42 egun)

A

2.eb: az. 13 - ots. 5 (49 egun)

T

3.eb: ots.12 - mai.7 (40 egun-batx2)

X

3.eb: ots. 12 - mai. 14 (49 egun-batx1)

D

1.eb: ir.9 - az. 29 (59 egun)

B

2.eb: ab. 2 - ots. 28 (53 egun)

H

3.eb: mar. 10 - ek. 13 (58 egun)

URRIA - 2024

1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30
31					

(22 egun)

AZAROA - 2024

				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

(20 egun)

ABENDUA - 2024

						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

(17 egun)

URTARRILA - 2025

		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

(19 egun)

OTSAILA - 2025

					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28		

(20 egun)

MARTXOA - 2025

						1	2
3	4	5	6	7	8	9	
10	11	12	13	14	15	16	
17	18	19	20	21	22	23	
24	25	26	27	28	29	30	
31							

(16 egun)

APIRILA - 2025

							1
2	3	4	5	6	7	8	
9	10	11	12	13	14	15	
16	17	18	19	20	21	22	
23	24	25	26	27	28	29	
30	31						

(15 egun)

MAIATZA - 2025

				1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11	
12	13	14	15	16	17	18	
19	20	21	22	23	24	25	
26	27	28	29	30	31		

(20 egun)

BATXILERGOA

BATX 2:

Azterketak: maiatzak 14, 15, 16, 19

BATX 1:

Azterketak: maiatzak 22, 23, 26, 27

DBH:

Azterketak: ekainak 16, 17, 18, 19

OHKO DEIALDIA

BATX 2:

Azterketak: maiatzak 14, 15, 16, 19

BATX 1:

Azterketak: maiatzak 22, 23, 26, 27

DBH:

Azterketak: ekainak 16, 17, 18, 19

Oporrak

Zubia

ORDUTEGIA 2024 - 2025

DBH, G. Egonkorra eta ZI Gela					Batxilergoa				
ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
1	8:10 - 9:05	8:10 - 9:05	8:10 - 9:05	8:10 - 9:05	1	8:10 - 9:05	8:10 - 9:05	8:10 - 9:05	8:10 - 9:05
2	9:05 - 10:00	9:05 - 10:00	9:05 - 10:00	9:05 - 10:00	2	9:05 - 10:00	9:05 - 10:00	9:05 - 10:00	9:05 - 10:00
	Atsedena 20'	Atsedena 20'	Atsedena 20'	Atsedena 20'	3	10:00 - 10:55	10:00 - 10:55	10:00 - 10:55	10:00 - 10:55
3	10:20 - 11:15	10:20 - 11:15	10:20 - 11:15	10:20 - 11:15		Atsedena 20'	Atsedena 20'	Atsedena 20'	Atsedena 20'
4	11:15 - 12:10	11:15 - 12:10	11:15 - 12:10	11:15 - 12:10	4	11:15 - 12:10	11:15 - 12:10	11:15 - 12:10	11:15 - 12:10
	Bazkald 1h20m	Bazkald 1h20m	Atsedena 20'	Atsedena 20'	5	12:10 - 13:05	12:10 - 13:05	12:10 - 13:05	12:10 - 13:05
5	13:30 - 14:25	13:30 - 14:25	13:30 - 14:25	13:30 - 14:25		Atsedena 25'	Atsedena 25'	Atsedena 20'	Atsedena 20'
6	14:25 - 15:20	14:25 - 15:20	13:25 - 14:20	14:25 - 15:20	7	14:25 - 15:20	14:25 - 15:20	14:20 - 15:15	14:25 - 15:20

b. Ebaluazioen egutegia

DBHko EBALUAZIO DATAK

1. EBALUAZIOA:

aurrebaluazio bilerak URRIAK 15, 16

ebaluazio bilerak ABENDUAK 3,4

noten banaketa ABENDUAK 9

2. EBALUAZIOA:

aurrebaluazio bilerak URTARRILAK 28, 29

ebaluazio bilerak MARTXOAK 11, 12

noten banaketa MARTXOAK 14

3. **EBALUAZIOA:**

aurrebaluazio bilerak MAIATZAK 13,14

OHIO DEIALDIA:

ebaluazio bilerak EKAINAK 19, 20

noten banaketa EKAINAK 21

Batxilergoko EBALUAZIO DATAK

1. EBALUAZIOA: *aurrebal bilerak URRIAK 8, 9*

azterketak AZAROAK 7, 8, 11, 12

ebaluazio bilerak AZAROAK 19, 20

noten banaketa AZAROAK 22

2. EBALUAZIOA: aurrebal bilerak

URTARRILAK 14, 15

azterketak OTSAILAK 6, 7, 10, 11

ebaluazio bilerak OTSAILAK 18, 19

noten banaketa OTSAILAK 21

3. EBALUAZIOA: aurrebal bilerak MARTXOAK 18, 19

BATX2ko azterketak

APIRILAK 30 MAIATZAK 5, 6, 8

BATX1eko azterketak MAIATZAK 15, 16, 19, 20

OHIKO DEIALDIA: BATX2 Maiatzaren 14, 15, 16 eta 19

BATX1 Maiatzaren 22, 23, 26 eta 27

ebaluazio bilerak MAIATZAK 20/21, 28/29

noten banaketa MAIATZAK 23 2.BATX.

noten banaketa MAIATZAK 30 1.BATX.

Errepaso klaseak: BATX2 Maiatzaren 26tik Ekainak 6ra

BATX1 Ekainaren 2tik 6ra

EZ OHIKO DEIALDIA: BATX2 Ekainaren 9, 10, 12 eta 13
(noten banaketa 17an)

BATX1 Ekainaren 12,13 eta 16 (noten banaketa 18an)

Unibertsitateari notak pasatzeko epeak:

-Ohiko deialdia: maiatzaren 15etik 22ra

-Ezohiko deialdia: ekainaren 14tik 19era

Selektibitateko azterketak:

-Ohiko deialdia: EKAINAK 4,5, 6,

-Ezohiko deialdia: UZTAILAK 2,3, 4,

c. Familiekin edo legezko tutoreekin komunikazioa.

- Udaletxearekin sinatuta dugun babesgabetasun egoeran dauden ikasleekin jarduteko protokoloaren jarraipena eta berrazterketa egin
- Ikastetxeko twitterra, sare sozialak eta web orria erabili ikastetxeko jarduerak zabaltzeko
- Familien eta ikastetxearen arteko elkarlana sustatu eta komunikazioak erraztu INIKA erabilita
- Hernaniko ikastetxeekin koordinazioa, lankidetzarako eta gogoeta partekatuak egin
- Bigarren Hezkuntzako ikastetxeekin eta inguruko ikastetxe publikoen esperientziak partekatu

d. Irakasleriaren eginbeharrak esleitzeko irizpideak.

- Irakasleen titulazioa, prestakuntza espezifikoa eta lan esperientzia
- Egoera laborala (finkoa edo ordezkoa, praktketan...), ikastetxean daraman denbora eta aurretik izandako kargua
- Irakasleen nahiak, borondatea eta gai desberdinetan duten sentsibilizazioa edota gaitasuna
- Irakasleek duten lan jardunaldia (murriztua badute egin behar gutxiago eskatu)
- Lanpostu batzuetarako tresna berrietan trebetasuna izatea
- Horizontal moduan banatzea, hau da, ahal den heinean 2 ziklo desberdinetan klase ez ematea. Hau oso garrantzitsua da irakasleen ordutegiak egiteko

e. Tutoretzen banaketarako irizpideak.

- 23-24 ikasturtean tutoretza kopurua ezartzerakoan hezkuntzak baldintzak aldatu zituen eta ondorioz, tutoreak bikoiztu egin ziren DBHn . Aurtengo kurtsoan horrela jarraituko dugu.
- Ikastetxean finko (behin-betiko) edo destino definitiboa izatea (ahal den heinean)
- 2 kargu ez izatea (aldi berean mintegi buru eta tutore ez izatea, adibidez)
- Taldean gutxienez 2 ordu klase ematea (ahal den heinean)
- 1. eta 3. mailan Tutore izan direnak ahal den heinean mantentzea 2. eta 4. mailako Tutoretzan (jarraipena emateko)
- Lan ordu murriztua ez izatea (ahal den heinean)
- Noizbehinka ere, karguak eta egin beharren arduradunak aldatzea edota tutoretzaz libratzea urtebete batez

f. Irakasleen koordinazioa.

- Ikastetxeko koordinazioa hobetzeko ikasketa burutza eta mailetako koordinatzaileek batzorde eta bilera gune desberdinen bidez
- Curriculum Proiektua eguneratuta mantentzea
- Mintegi bakoitzeko irakasleek ikasgai bakoitzeko programazioak berrikustea (DBH1, DBH3 eta 1.BATX mailatan)
- Mintegien arteko koordinazioa eta transbertsalitatea lantzea edukien sekuentziatzerakoan eta gaitasunak lantzerakoan

g. Ikastetxean ezohiko arreta emateko saioen antolaketa.

- Ikastetxean zuzenean dedikatu beharreko asteko 7 orduak Astearteko arratsaldeak 15:30 - 18:30 bitartean eta asteazkenetan 15.30 - 19:30 bitartean, ondorengo zereginak egiteko gelditzen gara:
 - irakasleen formakuntza IKT, Hezkidetza, HNP, AGENDA 30, ... inguruan
 - Taldeko, mailakako eta zikloko bilerak gai desberdinak lantzeko: aurrebaluazioak, ebaluazioak, elkarbizitza, eguneroko jarraipena, ikasbidaia...
 - Guraso bilerak, Klaustroak...

- Horretaz aparte badaude zenbait batzorde beste momentuetan ere biltzen direnak:
 - Hernaniko Udalak hezkuntzako ikastetxe guztiekin egiten dituen bilerak: hilean behin
 - Azpiegitura batzordea
 - Batzorde ekonomikoa
 - Elkarbizitza batzordea
 - Batzorde iraunkorra
 - Euskara batzordea
 - Organo gorena: urtean 3-6 alditan azteazkenetan 18.00-20.00
 - GU GEOK, Hernaniko ikastetxeen arteko plataforma

h. Ikasleak taldekatzeko irizpideak.

- Taldeetako ikasleen kopurua berdintsua izatea, gelaren tamaina kontutan izanda
- Neska eta mutilen kopurua berdintsua izatea
- Ikasteko gaitasun desberdineko ikasleak nahastea, errepikatzen duten ikasleak taldeetan sakabanaturik jartzen direla. Ikasleek aukeratutako ikasgaien arabera (hautazko, modalitateko eta aukerazko irakasgaietan)
- Ikasleen arteko harremanak kontutan izatea inor ez uzteko bakarrik, lagunik gabe talde batean, harreman positiboak sortzeko helburuarekin
- Akademikoki zailtasunak dituzten ikasleak (DCko ikasleak, errepikatzailak...) hainbat taldetan banatu, gero errefortzu orduak hobeto antolatu ahal izateko, ikasle hauek behar duten laguntza jasotzen dutela bermatzeko

i. Hezkuntza errefortzua eta laguntza antolatzeko irizpideak.

- Behar bereziak dituzten ikasleen laguntza prestatzen hasi. Egokitzapen curricularrak (ACI), DC ikasleak, errepikatzailak
- ZI gela eta Gela egonkorak dira ikastetxean, PT (pedagogia terapeutikoa) eta hezitzaileekin aurrera eramango ditugun taldeak
- Ikastetxeko baliabideak aprobeztatuz ahal den hobekien bideratuko ditugu. HBSP, PT, hezitzaileak, DC-ko taldeak,...
- Guzti honetarako, laguntza mintegiko funtzionamendurako behar diren arlo guztiak landuko ditugu, kideen ordutegiak, gure arteko koordinazioak, bilerak...

j. Gune komunak antolatzeko eta banatzeko.

- Kontuan izanik ikasle kopuru handia dugula, atsedean garaian jolas eremuak mailaka eta txandako erabiltzeko plangintza eginga dugu
- Harrobi eraikinean dugu jangela eta hara doaz bazkaltzen gelditzen diren ikasle guztiak. Ikasturte honetan, han dugun gelan bi txandatan emango zaie zerbitzua bazkaltzen geldituko diren ikasleei
- Ordenagailu gelak erreserba zerbitzuaren bitartez antolatzen dira. Lehentasuna emanaz beti IKT ematen duten irakasleei
- Liburutegiak maila desberdinetako ikasleek erabili ahal izateko ordutegian irekitzen dira. Agustin Iturriagako liburutegian batxilergoko ikasleek azterketa garaietan lehentasuna dute

k. Ikastetxeko zerbitzuak

Zerbitzua	Helburuak	Antolatzailea	Arduraduna	Jasotzaileak	Non - noiz	Finantzi azioa
-----------	-----------	---------------	------------	--------------	------------	----------------

JANTOKIA	○ Zerbitzua duintasunez ematea ○ Bazkaltiarrek ahalik eta autonomia/ardura handienarekin jokatzea ○ Bazkaltzeko garaia lasaia izatea ○ Enpresak ematen duen zerbitzua egokia izatea ○ Langileek ikastetxearen ezaugarriak kontuan hartzea	Hernani BHI eta Serunion-Aibak	Belen Merino	DBH 1.,2.,3. eta 4.mailako 300 ikasle inguru astelehen, astearte eta ostegunean Eta 70 ikasle inguru asteazken eta ostiralean.	Asteko bost egunetan, Harrobi eraikinean	Eusko Jaurlaritza eta familiak
----------	---	--------------------------------	--------------	--	--	--------------------------------

GARRAIOA	Urruti bizi diren ikasleak ikastetxera ekarri eta etxera eraman, autobusa antolatuta edo diru laguntzak lortuta.	Hernani BHI	Zuzendaritza	31 ikasle joaten dira autobusean eta 10 ikastetxeak antolatutako taxietan.	Egunero (astelehena-ostirala)	Eusko Jaurlaritza
----------	--	-------------	--------------	--	-------------------------------	-------------------

LIBURUTEGIA	Liburu, DVD eta aldizkariak eskuragarri izatea mailegu zerbitzuaren bitartez ABIES programa erabiliz, datu basea eta katalogoarekin jarraitu. Web orrian Agustin Iturriagako katalogoa zintzilikatu da kontsultak egiteko (OPAC-ABIES) Estrategia berriak landuko ditugu irakurketa hobetzeko.	Bi liburutegi daude, bat Agustin Iturriaga eraikuntzan eta bestea Santa Barbaran. Arduradunak diren bi pertsonak koordinatu egiten dira zerbitzua emateko eta datuen mantenurak o egin behar diren lanak egiteko	60+ irakasleak	ikasleak eta irakasleak	Santa Barbarako liburutegia: astelehenean, asteazkenean eta ostiraletan 10:00-10:20 Agustin Iturriagako liburutegia astearte, asteazken, ostegunetan 10:00 - 12:00	-
--------------------	--	--	-----------------------	--------------------------------	--	---

2.2.2 Berrikuntza eta eraldaketa

2.2.2.a Ikastetxearen berrikuntza proiektuak

Berrikuntza proiektuak ikastetxean.

Izenburua edo gaia

Koaderno digitala

Deskribapena

Helburua:

Koaderno digitala hezkuntza lege berrira, LOMLOEra, egokitzea, gure egunerokoan erabilgarria izateko asmoz.

Ekintzak:

- Zer koaderno digital erabili nahi dugun erabaki.
- Koaderno digital berria konfiguratu.
- Klaustroak koaderno digitalari buruzko formakuntza jaso.
- Koaderno digital berriarekin simulazioak egin.

Denboralizazioa:

- 1.
 - 2.
 - 3.
- ebaluazioetan zehar.

Ebaluazioa:

Galdetegiak

Izenburua edo gaia

B2 Ubidea - Ebaluazioa

Deskribapena

Helburua:

Irakasleen kompetentzia digitalean eta curriculumaren ezagutza sakontzea.

Ekintzak:

- Klaustro osoa matrikulatu B2 - Ebaluazioa formakuntzan.
- Google tresnen erabileran sakondu.
- B2 ikastaroa egin.
- Hausnarketa partekatua egin.

Denboralizazioa:

Urtarrilaren 10etik otsailaren 28ra.

Ebaluazioa:

Hausnarketa partekatua, galdetegia.

Izenburua edo gaia

Ikastetxeko webgunea

Deskribapena

Helburua:

Webgune irisgarriagoa egitea, Hernani BHIko irudia hobetzeko.

Ekintzak:

- Webgune berria inplementatu.
- Funtzionamenduaren arabera egokitu.

Denboralizazioa:

Kurtso osoan zehar, irailetik ekainera bitarte.

Ebaluazioa:

Balorazio eskala, erabiltzaile kopurua.

2.2.2.b Berrikuntza arduradunen plangintza

1. ANTOLAKETA

